

JARDUERAK

Balorezko proposamena garatzeko, gure berezoengana iristeko, hauekin harremanetan jartzeko eta diru sarrerek lortzeko hainbat jarduera burutu behar ditugu.

Gauzatu beharreko jarduera inportantena produkzioa da eta honen barruan hainbat atal hartu beharko ditugu kontuan. Alde batetik gure produktuaren diseinua, atal hau oso garrantzitsu da, izan ere, geroz eta diseinu polit eta originalak izan orduan eta bezero gehiago erakarriko ditugu. Bestetik, produktuaren kantitatea, kopuru hori produktua egingo ditueni eskatuko diegu. Horrez gain, gure produktua kalitate onekoa izan behar da eta horretarako lortu ditzakekun material egokienak erabili beharko ditugu. Amaitzeko, produktua nola entregatuko dugun adostu behar dugu, guk Platanomelón enpresaren bidez salduko dugunez, hauek egingo dute entrega.

Beste jarduera bat, bezeroen arazoak konpontzea da, baina gure enpresa ez da horretaz arduratzen, beraz guk ez dugu jarduera hori egin behar.

Burutu beharreko beste jarduera bat ordea, plataforma eta sareko jarduerak dira, izan ere, gure kontsoladoreak aplikazio bati konektatuta egongo dira. Ondorioz, aplikazio hori gestionatu beharko dugu eta etengabe berrikuntzak eta hobekuntzak egiten joan. Gainera, plataforma hori promozionatu beharko dugu, baina produktu sexualekin batera salduko dugunez promozio gutxi beharko du, izan ere, kontsoladoreak izango dira bezeroak erakarriko dituztenak eta ez aplikazioa.

Amaitzeko, enpresa barruan nahiz kanpoan egiten diren jarduerak identifikatu egin behar dira. Gure enpresako kanpo jardueretan, alde batetik B.S Atelier dugu, enpresa hau gure produktuak sortzeaz arduratuko da eta bestetik, Platanomelón enpresa dugu gure produktua beraien webgunean saltzeaz eta berezoei entregatzeaz arduratuko direnak. Gure enpresa barruan, produktuaren diseinuaz, produktuak duen aplikazioaz, bezeroak erakartzeaz eta haiekin harremana sortzean arduratuko gara.